



GB

GRAND BOT – PROTECT OUR FUTURE

6- HARREMANAK

Gure enpresak bezeroekiko izango dituen harremana funtsezkoak dira gure etorkizuna ona izateko. Hortaz, hori lortzeko, hainbat modutan erraztuko dugu gurekiko erlazioa, horrela haiekiko harremana hurbila izateko helburuarekin, inork ez duelako enpresa urrun batekin. Beraz, hirutan zatitu dugu gure **Harreman Plana**: asistentzia pertsonalizatua, errebisio ordainduak eta ideia lorpen kanpaina.

Asistentzia pertsonalizatuaren kontzeptuaren azalpena oso erraza da. Gure aldetik, bezeroarekiko eguneko 24 orduko asistentzia telefono bat izango dugu, edozein arazo izanez gero gu haien ondoan izateko. Honen helburua bezeroak arazo bat izatean konfiantzazko inor gertu izatea da. Horrela, pertsona hori gure enpresakoa izatean, bezeroak gudan izango duen ikuspegia laguntzaileztat izango da eta ez bakarrik langilez beteriko bulego batena.

Bestalde, gure aldetik 2 hilez behin errebisio ordaindu bat eskainiko diogu bezeroari. Honetan, gure teknikari bat sistemaren funtzionamendua egokiena bada ikustera joango da, gure ustez bezeroak gudan jarritako fidagarritasuna erakutsi behar dugulako. Errebisioa beharrezkoa da, azkenean pertsona baten biziarekin gabiltzalako lanean eta, beraz, honetan guztiz zorrotzak izango gara. Azkenik, hau guztiz ordaindua egongo da gure aldetik. Alde batetik ez duelako langilearen lan orduen kostua baino gehiago izango eta, bestalde, horrela gure laguntasuna erakusten diogulako. Honen gastuak, beraz, hileroko dirusarreraren zati txiki batek osatuko duen aurrezki kutxa batetik hartuko dira, enpresarekiko galerak ahalik eta txikienak izateko.





GB

Bukatzeko, ideia lorpen kanpaina bat sortuko dugu. Honetan, edozein bezero edota beste pertsonaren ideiak hartuko ditu hilean behin. Ideiak enpresak eskainitako zerbitzuak jasan ditzakeen hobekuntzak izango dituzte eta gure webgunean (www.protectourfuture.com) egingo den inkesta batean hartuko dira. Horrela, gure bezeroekiko harremanak sendotuko ditugu, gure enpresak hobetu dezaken edozer hobetuko dugu eta, gainera, bezero berriak lortzeko aukera izango dugu.